

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**Zk-2566**

EBAZPENA, 2001eko martxoaren 26koa, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Udalei dirulaguntzak nola eman arautzen dituen Ebazpena egokitzen da 2001eko ekitaldian aplikatu ahal izateko. Dirulaguntzak jasotzeko, udalek ekintza positiborako programak edo udal-planak izan behar dituzte, eta, emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna lortzeko bidean, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu behar dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategineko IX. tituluaren babesean, abenduaren 26ko 275/2000 Dekretua eman zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntza eta diru-laguntzak arautzen dituzten zenbait xedapenen indarraldia luzatzeari buruzkoa. Horiek 2001. ekitaldian aplikatu ahal izateko, epeak, baldintzak eta betekizunak egokitu ditzakete Jaurlaritzak, sailek eta erakunde autonomoek.

2000. ekitaldian, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2000ko maiatzaren 23ko Ebazpena eman zen, ekintza positiborako programak edo udal-planak izan behar eta emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna lortzeko bidean, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu behar dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak arautzen dituen, eta EHAAren 119. zenbakian, 2000ko ekainaren 23koan, argitaratu zena. Horrenbestez, bidezkoa da epe eta baldintza batzuk aldatzea, aipatutako erabakia 2001. ekitaldian aplikatu ahal izateko.

Horren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea.

2000ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei 2000 ekitaldian diru-laguntzak emateko bidea arautu zen. Dirulaguntzak jasotzeko, udalek ekintza positiborako programak edo udal-planak izan behar dituzte, eta, emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna lortzeko bidean, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu behar dituzte. Bada, 2001eko ekitaldian, ebazpen horrek ezarritako laguntza-deialdira biltzeko eskabideak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintari-

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**Nº-2566**

RESOLUCIÓN de 26 de marzo de 2001, de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, Emakunde, de adaptación para su aplicación durante el ejercicio 2001 de la Resolución por la que se regula la concesión de subvenciones a Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tengan aprobados programas o planes municipales de acción positiva, para la realización de actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

Al amparo de lo establecido en el Título IX del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, se dictó el Decreto 275/2000, de 26 de diciembre, sobre ampliación de la vigencia de determinadas disposiciones reguladoras de ayudas y subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, pudiendo, a tal fin, el Gobierno y los distintos Departamentos y Organismos Autónomos adaptar los plazos, condiciones y requisitos necesarios para su aplicación durante el ejercicio 2001.

En el ejercicio 2000, se dictó la Resolución de 23 de mayo de 2000 de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, por la que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2000, a ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tengan aprobados programas o planes municipales de acción positiva, para la realización de actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco núm. 119 de 23 de junio de 2000, por lo que procede la adaptación de los plazos y condiciones necesarios para la aplicación de la referida Resolución durante el ejercicio 2001.

En su virtud,

RESUELVO:

Artículo 1.– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes para acceder a la convocatoria de ayudas establecida por Resolución de 23 de mayo de 2000 de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, por la que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2000, a ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tengan aprobados programas o planes municipales de acción positiva, para la realización de actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, en el ejercicio 2001

tzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2. artikulua.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentuak.

Ebazpen honetan zehazten diren laguntzen eskatzaileek, 2000ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren eranskinean jasotzen diren ereduaren arabera eta eskatutako dokumentazioarekin batera, Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariari bidali behar dizkiote eskabideak (Manuel Iradier kalea, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz). Aipatutako 2000ko maiatzaren 23ko Ebazpena eranskinean agertzen da. Eskaerak zuzenean zein azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, aurreikusitako edozein modutan egingo dira.

3. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Ebazpen honetan araututako laguntzak finantzatzeko 5.000.000 PTA/30.050,61 euro erabiliko dira Aurrekontuaren IV. Kapituluaren esleitu diren kredituak zehazten dituzten mugen barruan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Edonorentzat eskuragarri izan eta interesatuari lana erraztearren, 2001erako egindako aurreikuspenak 2000ko maiatzaren 23ko Ebazpenaz ezarritako erregimen orokorrarekin bat egitetik sortutako testua jasotzen da ebazpen honen eranskinean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio bidea. Bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesatuek Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hilabete epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko Auzietako Salan, ebazpena aldizkari ofizial horretan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera bi hilabete epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko martxoaren 26a.

Zuzendaria,
TXARO ARTEAGA ANSA.

será de treinta días naturales partir del día siguiente a la publicación de la presente en el Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 2.– Solicitudes y documentación a presentar.

Las personas solicitantes de las ayudas a las que se refiere la presente, deberán dirigirlas, conforme los modelos que se incluye como anexos en la Resolución de 23 de mayo de 2000, que asimismo se anexa a ésta, junto con la documentación exigida en la misma, a la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, C/ Manuel Iradier, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz, bien directamente, bien por cualquier procedimiento previsto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 3.– Recursos económicos.

Se destina al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente Resolución, durante el presente ejercicio 2001, la cantidad de 5.000.000 pesetas/30.050,61 euros, con cargo al Capítulo IV del Presupuesto del Instituto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Para general conocimiento y facilitar el uso por las personas interesadas, se incorpora como Anexo a la presente Resolución el texto resultante de refundir las previsiones efectuadas para el ejercicio 2001 al régimen general establecido por la Resolución de 23 de mayo de 2000.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrán las entidades o personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de marzo de 2001.

La Directora,
TXARO ARTEAGA ANSA.

ERANSKINA

Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2000ko maiatzaren 23ko Ebazpenaren egokitutako testua, 2001ean aplikatu ahal izateko. Ebazpenaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei 2000 ekitaldian diru-laguntzak emateko bidea arautu zen. Diru-laguntzak jasotzeko, udalek ekintza positiborako programak edo udal-planak izan behar dituzte, eta, emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna lortzeko bidean, informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu behar dituzte.

1. artikulua. – Xedea

Ebazpen honen xedea dugu Emakumearen Euskal Erakundeak, Euskal Autonomia Erkidegoko udalei emango dizkien dirulaguntzak arautzea; hartara, udalek, 2001eko ekitaldian, Emakunderen eta tokiko erakundeen xede eta helburu bateratuekin lotutako egitasmo zehatzak egin ditzaten; horretarako, ondoren azaltzen diren artikuluetan xedatutakoa errespetatu behar dute, aurrekontuaren VI. Kapituluaren esleitu diren kredituak zehazten dituzten mugen barruan. Helburu honetara 5.000.000 PTA/30.050,61 euro bideratuko dira.

Deialdi hau lehiaketaren prozedura jarraituz ebatziko da.

2. artikulua. – Erakunde Onuradunak

1.– Ebazpen honetan arautzen diren dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eska ditzakete, beti ere, udalbatzak, ebazpen honetako 3. artikuluan azaltzen diren jarduerak garatzeko III. EEEPP-GIPEan zehaztutako Ekintza Positiborako Udal Plan edo Programa bat onartu badu.

2.– Horrez gain, eskaera egiten duen udalak ere dirulaguntza ematea beharrezkoa izango da, dirulaguntzarekin egingo diren jarduerak garatzeko.

3. artikulua. – Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak

III. EEEPP honen esparruan, eta Emakunderen helburuekin bat etorritik, dirulaguntzak jasoko dituzten egitasmoak edo jarduerak, emakumeen eta gizonen artean aukera berak izatea aldarrikatzen duen informazioarekin, sentsibilizazioarekin eta prestakuntzarekin lotutakoak izango dira, eta honako hauek izango dira:

a) Emakumeen eskubideei eta emakumeengana zuzendutako ekintza positiborako neurriei buruzko informazioarako eta hedapenerako jarduerak.

b) Berariak emakumeengana zuzendutako kanpainak, emakumeengandik hurbilen eta eskuragarrien dauden komunikabideen bidez zabalduak, emakumeek Euskadiko gizarte-bizitzan, bizitza ekonomikoan, politikoan eta kultur bizitzan parte hartzea sustatuko dutenak.

ANEXO

«Texto adaptado, para su aplicación durante el ejercicio 2001, de la Resolución de 23 de mayo de 2000 de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, por la que se regula la concesión de subvenciones, durante el ejercicio 2000, a ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tengan aprobados programas o planes municipales de acción positiva, para la realización de actividades relacionadas con la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres»

Artículo 1. – Objeto

Es objeto de la presente Resolución la regulación de las subvenciones a conceder por el Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea a Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la realización, durante 2001, de proyectos y actividades relacionadas con los fines y objetivos comunes del Instituto y de las Entidades Locales, en los términos señalados en los artículos siguientes y dentro de los límites que determinan los créditos consignados en el Capítulo IV de su Presupuesto. A este fin se destinará un total de 5.000.000 pesetas/30.050,61 euros.

La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso.

Artículo 2. – Entidades Beneficiarias

1.– Podrán solicitar las subvenciones reguladas en la presente Resolución, aquellos Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi que tengan aprobado por el Pleno un Programa o Plan Municipal de Acción Positiva que concrete el III PAPME –EGPP, para el desarrollo de las actividades señaladas en el artículo 3 de la presente Resolución.

2.– Será necesaria, además, la existencia de aportación económica por parte del Ayuntamiento solicitante para el desarrollo de las actividades objeto de subvención.

Artículo 3. – Actividades subvencionables

En el marco del III PAPME y en consonancia con los fines del Instituto, los proyectos o actividades a subvencionar deberán ir dirigidos a la información, sensibilización y formación en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres que a continuación se detallan:

a) Actividades de información y divulgación de los derechos de las mujeres y de las medidas de acción positiva dirigidas a las mismas.

b) Actividades de sensibilización dirigidas específicamente a las mujeres, a través de los medios de comunicación más cercanos y asequibles a ellas, que estimulen su presencia en la vida social, económica, política y cultural de Euskadi.

c) Bereziki gizonengana zuzendutako sentsibilizaziorako jarduerak, gizonen ugalketarako esparruan duten erantzukizun berdina sustatzera zuzendutakoak.

d) Gizarte osoak, emakumeek eta gizonen, esparru publikoan zein pribatuan, aukera berak izateko eta erantzukizun berak edukitzeko beharraz ohartzeko sentsibilizazio-jarduerak.

e) Udaleko langileen edota udalerriko bestelako talde profesionaletako langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzen dituzten jardunaldiak, mintegiak, ikastaroak eta pareko jarduerak, emakumeentzako berriazko arretarekin loturiko alderdietan edo emakumeen eta gizonen artean aukera berdinak egotearekin loturiko alderdietan.

f) Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunarekin loturiko materialak eta informazioa emateko, sentsibilizaziorako edota prestakuntzarako metodologiak lantzea eta hedatzea.

4. artikulua. – Eskabideak aurkeztea

1.– Eskariak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunik hasita.

2.– Eskaerak Emakumearen Euskal Erakundearen egoitzan aurkeztu behar dira, Manuel Iradier kalea, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz, edo administrazio-prozeduraren araudian aurreikusitako edozein bide jarraituz aurkez daitezke.

5. artikulua. – Dokumentazioa

Eskariak Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari bidaliko zaizkio, eta ondoren adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) Eskaria egin duen udalari buruzko datuak, I. eranskinaren ereduaren arabera.

b) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

c) «Datuen Alta / Hirugarren Interesduna» inprimakia, erakunde honetan emango dena.

d) 2001eko abenduaren 31 baino lehen egin behar diren jarduerak azaltzen dituen egitasmoa; honako datu hauek azaldu beharko ditu gutxienez: jarduera bakoitzari buruzko justifikazioa eta deskribapena, helburuak, erabiliko den metodologia, egutegia, ebaluaziorako adierazleak, aurreikusi diren gastuen aurrekontu xehatua, udalak egindako ekarpena zehazki adieraziz, kudeatzen edo finantzatzen dituen arloak zeintzuk diren zehaztuz. Laguntzagai den jarduera bakoitzagatik, II. eranskina, osorik, bete beharko da.

e) Udalbatzak Ekintza Positiborako Udal Plana edo Programa onartu duelako ziurtagiria.

c) Actividades de sensibilización dirigidas especialmente a los hombres orientadas a fomentar la corresponsabilidad de éstos en el ámbito reproductivo.

d) Actividades de sensibilización del conjunto de la sociedad sobre la necesidad de la igualdad de oportunidades y la corresponsabilidad entre mujeres y hombres en los ámbitos público y doméstico.

e) Jornadas, seminarios, cursos y actividades análogas en las que se promueva la sensibilización y formación del personal del Ayuntamiento y/o de otros grupos profesionales del municipio en aspectos relacionados con la atención específica a mujeres o con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

f) Elaboración y difusión de materiales y metodologías de información, sensibilización y/o formación de aspectos relacionados con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

Artículo 4. – Presentación de solicitudes

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de treinta días naturales, a contar desde el día siguiente al de la fecha de publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes se presentarán en la sede del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, C/ Manuel Iradier, 36, (01005) Vitoria-Gasteiz, o por cualquiera de los medios previstos en la normativa de procedimiento administrativo.

Artículo 5. – Documentación

Las solicitudes se dirigirán a la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea, acompañadas de la siguiente documentación:

a) Datos relativos al Ayuntamiento solicitante, según modelo Anexo I.

b) Fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

c) Impreso «Alta de Datos / Tercero Interesado» que se facilitará en este Instituto.

d) Proyecto en el que figure la actividad o actividades a realizar antes del 31 de diciembre de 2001, y que deberá contener como mínimo: una breve justificación y descripción de cada actividad, objetivos, metodología empleada, calendario, indicadores de evaluación, presupuesto desglosado de los gastos previstos, con indicación detallada de la aportación del Ayuntamiento, indicando el área o las áreas que gestiona/n y/o financia/n. Por cada una de las actividades por las que se solicite la subvención será necesario cumplimentar, en su totalidad, el Anexo II.

e) Certificación acreditativa de la aprobación por el Pleno del Programa o Plan Municipal de Acción Positiva.

6. artikulua. – Aurkeztutako eskabidean akatsak zuzentzea

Aurkeztutako eskabideak osorik ez baleude, edo 5. artikuluan eskatutako agiriren bat faltako balitz, Era-kundeak falta den dokumentazioa aurkezteko edo antzemandako hutsa zuzentzeko eskatuko luke, eta hamar egun naturaleko epea emango, horretarako jakinarazpena egin eta biharamunetik hasita. Eskatzaileak jaramonik egin ezean, eskabidean atzera egin duela uler-tuko da. Hala agintzen du, 4/1999 Legearen arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua.

7. artikulua. – Hautaketa Batzordea

Aurkezten diren eskariak aztertzeko eta ebaluatzeko, hautaketa batzorde bat eratuko da, honako partai-de hauek osatuko dutena:

Burua: – Idazkari Nagusia.

Batzordekideak: – Lege Aholkularitzako arduraduna.

– Administrazio eta Finantza Zerbitzuko arduraduna.

– Programak Sustatzeko arduraduna.

Idazkaria: – Lege Aholkularitzako arduraduna izango da.

8. artikulua. – Dirulaguntzak esleitzeko irizpideak

Dirulaguntza esleitzeko eta kuantifikatzeko irizpide bezala, Hautaketa Batzordeak ondoren adierazten diren puntuak kontuan hartuko ditu, bakoitzari emandako puntuazioaren arabera:

a) Jardueraren eragin biderkatzailea. 20 puntu gehienez.

b) Udal-arlo edota udal-erakundeen arteko koordinazioa, bai aurrekontuan inplikatzeko orduan, bai jardueren kudeaketan ere. 15 puntu gehienez.

c) Jardueraren elementu berritzaileak. 15 puntu gehienez.

d) Euskararen erabilera. 10 puntu gehienez.

e) Jarduerak «Arau-gaitasuna eta gaitasun betearazlea eraikitzea, Euskadiko botere publikoetan genero-arekin sentikorrek diren politikak sor daitezen» arlo horrekin duten egokitzapena, nahiz 1. arloarekin duten egokitzapena: «Emakumeen eskubideak, giza eskubideak», nahiz 5. arloarekin «Aukera-berdintasuna enpleguan eta ekonomia arloko erabakiak hartzerakoan» III. EEEPPekoa. 10 puntu gehienez.

f) Aurreko jardueren jasotzaile diren emakumeek jarduerak diseinatzen parte hartzea. 10 puntu gehienez.

Artículo 6. – Subsanción de defectos en la solicitud presentada

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación señalada en el artículo 4, el Instituto requerirá la presentación de la documentación omitida o la subsanción del defecto observado concediendo, a estos efectos, un plazo de diez días naturales a contar desde el día siguiente al de su notificación con indicación de que, si así no lo hiciera, se tendrá por desistida de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y el Procedimiento Administrativo Común, por mor de la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 7. – Comisión de selección

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de selección compuesta por:

Presidenta: – Secretaria General.

Vocales: – Responsable de la Asesoría Jurídica

– Responsable del Servicio Administrativo-Financiero.

– Responsable de Impulso de Programas

Secretaria/o: – Actuará como tal la persona responsable de la Asesoría Jurídica.

Artículo 8. – Criterios de adjudicación de las subvenciones

Como criterios para la concesión y cuantificación de las subvenciones, la Comisión de selección tendrá en cuenta, atendiendo a la puntuación asignada a cada uno de ellos, los siguientes:

a) El efecto multiplicador de la actividad. Hasta 20 puntos.

b) La existencia de coordinación entre distintas áreas y/o entidades municipales, tanto en la implicación de presupuestos como en la gestión de las actividades. Hasta 15 puntos.

c) Los elementos innovadores de la actividad. Hasta 15 puntos.

d) La utilización del euskera. Hasta 10 puntos.

e) La adecuación de las actividades a las unidades recogidas en el área «Construcción de la capacidad normativa y ejecutiva para el desarrollo de políticas sensibles al género desde los poderes públicos de Euskadi» y/o en el área 8: «Una organización territorial y urbanística favorable a la igualdad de oportunidades y al desarrollo sostenible» del III PAPME. Hasta 10 puntos.

f) Participación de las mujeres destinatarias de las acciones en el diseño de las mismas. Hasta 10 puntos.

g) Minusbalioak edo beste era bateko zailtasunak dituzten emakumeek parte har dezaten bultzatzeko, jardueren eta espazioen egokitzapenak. 10 puntu gehienez.

h) Jarduerak duen eraginaren ebaluaziorako adierazleak diseinatzea eta ebaluazioa egiteko mekanismo egokiak erabiltzea. 10 puntu gehienez.

9. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa

1.– Dirulaguntza bakoitzak izango duen zenbatekoa, Hautaketa Batzordeak proposatutakoaren arabera, 8. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideen arabera emandako puntuazioa oinarritzat hartuz zehaztuko da.

2.– Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da udalak jarduera horietarako daukan aurrekontuaren %25etik gorakoa izan.

Era berean erakunde onuradun bakoitzari esleitutako gehieneko zenbatekoa, ezin da 800.000 PTatik (4.808,10 euro) gorakoa izan.

10. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusi diren dirulaguntzak bateragarri dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntzekin, beti ere ez bada gainfinantzaketarik gertatzen.

Gainfinantzaketarik izanez gero, dirulaguntza murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

11. artikulua.– Ebazpena

1.– Hautaketa Batzordeak eskariak ebaluatuko ditu, esleipen-irizpideen arabera, eta ondoren, bere proposamena Emakundeko zuzendariari bidaliko dio. Zuzendariak berariazko eta banakako ebazpena emango du, dagokion dirulaguntza esleitzuz. Dirulaguntzak onartzen eta ukatzen dituzten ebazpenak eskabidea aurkeztu duten udalei jakinaraziko zaizkie. Aldi berean, esleitutako dirulaguntzen zerrendari dagokion ebazpena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Ebazpen honen babesean egindako eskariei buruzko ebazpena hartzeko zein ebazpenen berri emateko gehieneko epea sei hilekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hasita. Epe hori amaitzean erakunde interesdunari ez bazaio ebazpenik jakinarazi, dirulaguntza ezezi zaiola ulertu behar da, hala ezartzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

12. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak

Ebazpen honetan arautzen diren dirulaguntzen erakunde onuradunek, edozein kasutan, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

g) La adecuación de las actividades y espacios para fomentar la participación de mujeres con discapacidades o con otras dificultades añadidas. Hasta 10 puntos.

h) El diseño de indicadores de evaluación del impacto y la utilización de mecanismos de evaluación adecuados. Hasta 10 puntos.

Artículo 9.– Cuantía de las subvenciones

1.– La cuantía individualizada de la subvención se determinará sobre la base de la puntuación asignada en función de los criterios de adjudicación establecidos en el artículo 7, a propuesta de la Comisión de selección.

2.– La cuantía de la subvención no podrá superar el 25% del Presupuesto del ayuntamiento para dichas actividades.

Asimismo, la cuantía máxima de la subvención por entidad beneficiaria, no podrá exceder de 800.000 pesetas/4.808,10 euros.

Artículo 10.– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquiera otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación.

Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 11.– Resolución

1.– Las solicitudes serán evaluadas sobre la base de los criterios de adjudicación por la Comisión de selección, que elevará su propuesta a la Directora del Instituto. Ésta dictará Resolución expresa e individualizada adjudicando la correspondiente subvención. La Resolución de concesión o denegación de las subvenciones será notificada a los Ayuntamientos solicitantes. Asimismo, la Resolución correspondiente a la relación de las subvenciones concedidas será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– El plazo máximo para resolver y notificar las solicitudes formuladas al amparo de la presente Resolución será de seis meses desde la entrada en vigor de la Resolución de Convocatoria. Si transcurrido este plazo no hubiera sido notificada a la Entidad interesada Resolución alguna podrá entenderse desestimada la petición de subvención, de conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Artículo 12.– Obligaciones de los Ayuntamientos beneficiarios

Los Ayuntamientos beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Resolución deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Zentzu honetan, dirulaguntza emateko jakinarazpena jasotzen den egunetik hasita, hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badiote, dirulaguntza onartu dutela ulertuko da.

b) Dirulaguntza xede jakin bat betetzeko ematen denez, xede jakin horretara bideratu behar da dirulaguntza, dekretu honetako 14. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar ez bada, behintzat.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari betebeharreko funtzioei buruzko informazioa ematea, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei dagokienez.

d) Idatziz jakinarazi beharko da dirulaguntza jaso duten jarduerak aldatu edo moldatu nahi badira, eta aldatetak egin ahal izateko Emakundeko Zuzendaritzak espreski onartu behar du eskaria.

e) Dirulaguntza jaso duten jardueri buruzko publizitate orotan, Emakumearen Euskal Erakundearen laguntza jaso duela azaldu behar du (III. eranskinaren arabera).

13. artikulua. – Dirulaguntzaren ordainketa

1. – Dirulaguntza jarduera edo jarduerak gauzatu ondoren eta ondorioz izandako gastu guztiak justifikatu ondoren ordainduko da, eta horretarako, 2002ko otsailaren 28a baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Dirulaguntza jaso duten jardueri dagokienez, izandako gastuaren jatorrizko fakturak. Fakturen edo agirien gastuaren datak ezin du 2001eko abenduaren 31 baino beranduagoa izan.

– Jasotako funts publikoak nola erabili diren justifikatzeko memoria. Memoria horretan azalduko dira dirulaguntzarekin eginiko jarduera bakoitzari buruzko justifikazioa eta deskribapena, betetako helburuak, erabilitako metodologia, egutegia, ebaluaziorako adierazleak, gastuen aurrekontu zehatua, udalak egindako ekarpena zehazki adieraziz, kudeatzen edo finantzatzen dituen arloak zeintzuk diren zehaztuz.

– Dirulaguntza jaso duten jardueri buruz egiten den publizitatean, Emakumearen Euskal Erakundea aipatu dela justifikatzen duten agiriak (III. eranskinaren arabera).

2. – Aurkeztu diren fakturen edo agirien zenbatekoak, guztira, ez badu ordaindutako dirulaguntza osoa hartzen, jakinarazi egin beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira dirua itzultzeko.

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención los Ayuntamientos beneficiarios no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida, salvo que resulte de aplicación lo establecido en el artículo 14, y admitir, en todo momento, la verificación por parte del Instituto de las actividades subvencionadas a desarrollar.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar, por escrito, cualquier variación o modificación que pretendan efectuar en las actividades subvencionadas, requiriéndose la expresa aprobación de la Dirección del Instituto para su realización.

e) Hacer constar, en cuanta publicidad se efectúe de las actividades subvencionadas, la colaboración del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea (según Anexo III).

Artículo 13. – Pago de la subvención

1. – El pago de la subvención se efectuará una vez realizada la actividad o actividades y justificados todos los gastos generados por la/s misma/s hasta cubrir el importe de la subvención otorgada, mediante la presentación antes del 28 de febrero del 2002 de la documentación siguiente:

– Facturas originales acreditativas del gasto realizado con relación a las actividades subvencionadas. La fecha del gasto de las facturas o documentos al efecto, no podrá exceder del 31 de diciembre de 2001.

– Memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos públicos percibidos. En dicha memoria se describirán las actividades realizadas, los objetivos conseguidos, metodología empleada, calendario, indicadores de evaluación, desglose de gastos realizados con indicación detallada de la aportación del Ayuntamiento, indicando el área o áreas que han financiado las actividades.

– Documentos justificativos de que se ha hecho constar, en cuanta publicidad se efectúe de las actividades subvencionadas, la colaboración del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea (según Anexo III).

2. – En el supuesto de que el importe total de las facturas o documentos presentados no cubriera el importe de la subvención abonada, deberá señalarse expresamente dicha circunstancia, a efectos de lo establecido en el artículo siguiente.

14. artikulua.– Dirulaguntza emateko baldintzen aldaketa

1.– Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, beti ere dirulaguntzaren helburua bete bada, eta hala badagokio, beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako dirulaguntzak edo laguntzak aldi berean lortzen badira, ondorioz, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatzea gerta daiteke.

2.– Aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, eta dokumentazioa aztertu eta ebaluatu ondoren, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria, administrazio-bidea amaitutzat emango duen ebazpen baten bidez, emandako dirulaguntza likidatzen hasiko da; likidazioan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituz.

15. artikulua.– Ez betetzeak

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak bete ez direla baieztatzen bada, jasotako zenbatekoak eta zenbateko horri dagozkion lege-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko dira, gainerako ekintza egokiak alde batera utzi gabe, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

16. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura

Emandako dirulaguntza ezeztatzeko eta, hala dago-kionean, itzultzeko prozedura, ezarritako baldintzak edota betebeharrak betetzen ez badira, abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuan xedatutakoari lotuko zaio. Dekretu horrek honako hau ezartzen du:

a) Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak jakinaraziko dizkio erakunde interesdunari, prozeduraren hasiera eta oinarritzen deneko arrazoiak, erakundeak egokitatzat jotzen dituen alegazioak egiteko hamabost egun baliouduneko epea emanez.

b) Alegazioak jaso edo arrazoibideak egin gabe epea pasa ondoren, prozedura amaitutzat joko da, Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaitutzat joko du.

Ebazpenak ez direla bete irizten badu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortuko da, eta hala badagokio, jadanik jasotako zenbatekoak eta ezarri behar zaizkion legezko korrituak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko dira. Itzulketa egiteko, gehienez bi hileko epea izango da, jakinarazpena egiten den egunetik hasita. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

c) Borondatezko aldian itzulketarik egiten ez bada, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunari jakinaraziko zaio, premia-

Artículo 14.– Alteración de las condiciones de la subvención

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones.

2.– Recibida la documentación señalada en el artículo anterior, previo el análisis y evaluación de la misma, la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea procederá, mediante Resolución que pondrá fin a la vía administrativa, a efectuar la liquidación de la subvención concedida en la que se reajustarán los importes de la misma.

Artículo 15.– Incumplimientos

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en el Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre y el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan, sin perjuicio de las demás acciones que procedan.

Artículo 16.– Procedimiento de reintegro

El procedimiento para la revocación y, en su caso, la devolución de la subvención concedida, en el supuesto de incumplimiento de las condiciones y/u obligaciones establecidas, se ajustará a lo dispuesto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, que establece lo siguiente:

a) La Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea comunicará a la Entidad interesada la iniciación del procedimiento y las causas que lo fundamentan, concediendo un plazo de 15 días hábiles para que formule las alegaciones que estime oportunas.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran realizado, se pondrá fin al procedimiento por Resolución de la Directora del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea. Dicha Resolución pondrá fin a la vía administrativa.

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas más los intereses legales que resultaren de aplicación, en el plazo máximo de dos meses, a contar desde su notificación. Este plazo se considerará como período voluntario.

c) La falta de reintegro en el período voluntario será puesta en conocimiento del Organismo competente del Departamento de Hacienda y Administración Pública

mendu-bideari ekin ahal izateko, aplikatzekoa den legezko araudian xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Artikuluaren esleitu den guztizko zenbatekoa alda daiteke, eskatutako laguntzen guztizko zenbatekoa kontuan hartuz, Emakumearen Euskal Erakundearen beste laguntza-programak gauzatzetik gastatu gabeko dirulaguntzak erabil daitezkeen kontuan hartuz, eta programa horiei buruzko ebazpena hartu baino lehen.

del Gobierno Vasco, a fin de que se proceda por la vía de apremio, según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado podrá ser modificado teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea y con carácter previo a la resolución de las mismas.

I. ERANSKINA

UDALARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Nongo udala:	
Pertsona arduraduna:	
Harremanetarako pertsona:	
Helbidea:	
Telefonoa:	IFZ:

BANKUKO DATUAK	
Banketxea:	
Banku-sukurtsalaren helbidea:	
Kontu zk.:	

II. ERANSKINA

JARDUEREN EGITASMOA
(jarduera bakoitzerako)

Jardueraren izena:

Ekintza Positiborako Udal Planean jarduera identifikatzea		
Arloa	Helburua	Ekintza

III. EEEPPean jarduera identifikatzea		
Arloa	Helburua	Ekintza

Jardueraren justifikazioa eta deskribapena:

Helburuak:

1.- _____

2.- _____

3.- _____

4.- _____

5.- _____

Metodologia:

Arlo bakoitzeko jarduerak eta funtzioa kudeatzen dituzten esparruak:

Parte hartzen duten beste zenbait arlo: _____

Jarduera nori zuzentzen zaion: _____

Jardueran parte hartzeko aurreikusitako pertsona-kopurua: _____

Jardueraren egutegia:

Ordu-kop.: _____ Lehen eguna: _____ Azken eguna: _____

Jarduera diseinatzean parterik hartu al dute jarduera horren jasotzaileek? Nola? _____

Minusbalioak edo beste era bateko zailtasunak dituzten emakumeek parte har dezaten bultzatzeko, jarduerak eta espazioak egokitu al dira? Nola? _____

Irizpideak / Ebaluaziorako adierazleak:

Jardueraren hizkuntza:

Euskara Gaztelania Euskara/Gaztelania Beste bat

JARDUERAREN AURREKONTUA

GASTUAK:

Hizlarien / Irakasleen gastuak:

Ordainsariak _____

Ostatua: _____

Garraioa: _____

Beste zenbait: _____

Materialaren gastuak:

Fotokopiak: _____

Material didaktikoak (liburuak, ikus-entzunezkoak...)

Materialen alokairua: _____

Beste zenbait material: _____

Publizitatea:

Diseinuak eta logotipoak: _____

Hormirudiak eta liburuxkak: _____

Prentsako eta irratiko iragarkiak: _____

Beste zenbait: _____

Jarduerak egiteko lokalak alokatzea: _____

Azpiegiturearen gastuak:

Posta: _____

Telefonoa eta faxa: _____

Beste zenbait: _____

Beste zenbait gastu: _____

GASTUAK GUZTIRA _____

DIRU-SARRERAK:

Udalak guztira egindako ekarpena: _____

(Jatorrizko arloa/k eta zenbatekoa zehaztu)

Beste zenbait erakundeek ekarpena: _____

Partehartzaileen ekarpena: _____

Beste zenbait dirulaguntza: _____

DIRU-SARRERAK GUZTIRA _____

Objetivos:

1.- _____

2.- _____

3.- _____

4.- _____

5.- _____

Metodología:

Áreas que gestionan la actividad y función de cada área: _____

Otras áreas que participan: _____

Personas destinatarias de la actividad: _____
N.º de personas previstas en la participación de la misma: _____

Calendario de la actividad:
N.º Horas: _____ *Fecha de inicio:* _____ *Fecha de finalización:* _____

¿Han participado las personas destinatarias en el diseño de la actividad? ¿De qué forma? _____

¿Se han adecuado las actividades y espacios para fomentar la participación de mujeres con discapacidades o con otras dificultades añadidas? ¿De qué forma? _____

Criterios / Indicadores de evaluación:

La actividad se realizará en:

Euskera Castellano Euskera/Castellano Otra

PRESUPUESTO DE LA ACTIVIDAD

GASTOS:

Gastos de ponentes / profesorado:

Honorarios: _____

Alojamiento: _____

Transporte: _____

Otros: _____

Gastos de material:

Fotocopias: _____

Materiales didácticos (libros, audiovisuales ...) _____

Alquiler de materiales: _____

Otros materiales: _____

Publicidad:

Diseños y logotipos: _____

Carteles y folletos: _____

Anuncios prensa y radio: _____

Otros: _____

Alquiler de locales para las actividades: _____

Gastos de infraestructura:

Correos: _____

Teléfono y fax: _____

Otros: _____

Otros gastos: _____

TOTAL GASTOS _____

INGRESOS:

Aportación total del Ayuntamiento: _____

(Especificar Area/s de procedencia y cantidad)

Aportación de otras Entidades: _____

Aportación de las personas participantes: _____

Otras subvenciones: _____

TOTAL INGRESOS _____

III. ERANSKINA

Emakunde /Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoaren ezaugarriak

Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundearen logotipoa, programa hauetan, zabaldu behar den publizitate-euskarrian azalduko da, dirulaguntza jaso duen elkarte edo erakundearen kategoria berdinarekin, eta honako proportzio hauek errespetatuz:



OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Zk-2567

EBAZPENA, 2001eko maiatzaren 2koa, Funtzio Publikoaren zuzendariarena, 791/01-02 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari buruzko espediente bidaltzea xedatu eta interesaturik egon daitezkeenak epatzen dituena.

791/01-02 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokion espediente —ohiko prozedura— bidaltzeko eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak —2. sekzioa—. Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2001eko urtarrilaren 2ko Ebazpenaren aurka aurkeztu zuen errekurtso hori M.^a Lourdes Saez de Cerain Beitia andreak; Funtzio Publikoaren zuzendariaren 2000ko ekainaren 8ko Ebazpenaren aurka aurkeztutako gorako errekurtsoa ezetsi zuenaren aurka, hain zuzen ere.

Errekurtso hori aurkezteko arrazoa da, izan ere, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko xedapen iragankorretatik laugarrenean aurreikusitakoaren eraginpean sartzeko errekurtsogileak egin dako eskabidea ezetsi izana.

ANEXO III

Características del logotipo de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer

La reproducción del logotipo de Emakunde / Instituto Vasco de la Mujer, para estos programas, se colocará en el soporte publicitario a difundir con la misma categoría que el logotipo de la entidad subvencionada, guardando las siguientes proporciones:



DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Nº-2567

RESOLUCIÓN de 2 de mayo de 2001, del Director de Función Pública, por la que se dispone la remisión del expediente administrativo relativo al recurso contencioso-administrativo n.º 791/01-02 y se emplaza a los/as posibles interesados/as.

Por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección n.º 2, ha sido requerida la remisión del expediente administrativo relativo al recurso contencioso-administrativo, procedimiento ordinario 791/01-02, interpuesto por Araceli Lozano Otero, contra la Resolución de 2 de enero de 2001 del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco desestimatoria del recurso de alzada interpuesto contra la Resolución de 8 de junio de 2000 del Director de Función Pública.

El recurso anterior trae su causa de la desestimación de la solicitud de inclusión de la recurrente en las previsiones de la disposición transitoria cuarta de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.